


SUA ETA GERO



Koldo Almandoz

ESNATU. Bufalo larrua bildu eta ankutsik atera naiz tipiatik egunsentiko lehen izpiekin berotzera.

HOTZA. Goizeko aire garbia arnasten dudan bitartean jantzi ditut mokasiñak.

Tipira bueltatu eta gizon zuriak ekarritako Winchesterra jarri dut sorbaldan.

Gutxinaka nire urratsak dentatik aldendu dira.

Lau negu igaro dira dagoeneko sute handia gertatu zenetik. Gogoan ditut oraindik bufaloen begietan somatzen ziren zorabio eta beldurra. Egun hartan zuhaitzetako adarrak suzko besoetan bihurturik, haizearen laguntzaz gorroto geziak zabaldu zituzten beren anaien artean. Asteetan zehar eguna gau bihurtu zen eta honek izpirituak uxatu zituen. Izpirituekin batera nire jendea joan zen eta bakarrik geratu naiz heriotzezko lur honetan.

Lau negu igaro dira eta hala ere mendiek ez dute beren aurpegia azaltzen elur moztiroaren gainetik. Lakuetakozko izpirituak uraren sakontasunean ezkutatzen dira zuhaitzen heriotzaren ispilu bihurturik.

Hala ere bakardade honetan, Ama Lurrak ez nau ahazten. Batzuetan aurkitzen ditut alde egin ez duten urtxintzak, hartzen batek hildako oreinen hondakinak edo harkaitzen aurka ahalegiñaz leherturiko salmoien bat. Nahiz eta sakontasunezko kea ateratzen den lurretan bizi, Ama Lurrak ez dizkit bidali arrazoia ehizatzen duten zaldunik.



YELLOWSTONEN



Zaharregia nintzen lurralde berrietara abiatzeko eta zaharregia naiz negu berri bat ikusteko baina duela hiru ilargi, ibaia errekatsoetan mozten den lautadan ikusi nituen bufalo gazteak izpirituen itzuleraren iragarri garbia direla pentsatuko nuke eta horregatik lakuko izotzak bigundu baino lehen "Harri Horizko" lurralde hau nire jendearentzat berriro bizileku bihurtuko dira.



Fotos del autor

RESUMEN

YELLOWSTON DESPUES DEL GRAN INCENDIO

CON motivo de un viaje al Parque Nacional de Yellowstone, Wyoming (USA) el año pasado, tuve la oportunidad de fotografiar las consecuencias del terrible incendio de 1988. Todavía son patentes la desolación y las consecuencias del incendio, y acorde con el tono triste y desesperanzado de las diapositivas, adjunto una corta historia, recreando lo que podía sentir un viejo cazador aborigen, hace muchos siglos, cuatro años después del gran incendio del bosque.